


Marcos Simón: "Garapen ekonomikoa emateko asko asmatzea ez da garrantzitsua, asmatutakoek merkatua izan dezaten lortzea baizik"



***"Esperientzia honi esker egoe-
rak hobeto eba-
luatzen, xeheta-
sunen garrantzia
erlatibizatzen eta
negoziatzen ikasi
dut. Pertsonen
ekarpenak gehia-
go baloratzen
ditut, proiektua-
ren oinarritzko
zati bezala"***

Marco Simonen iritziz, DROn garatutako produktuen bidez, enpresaren bezeroek, beste modu batera ezingo lituzketen produktuak garatu eta ikerketak egin ditzakete. *"Gure bezeroek garapen farmazeutikoren hainbat alderditan jarduten dute, gaixotasun bat eragiten duen gen bat aurkitzetik hasi, eta molekula jakin baterako formulazio-sistema galenikoak aurkitu eta nola hartu behar diren arte. Gure lanari esker, alderdi horietan sakontzen dute, beste batek, euren lanak aurrera jarraitzeko behar dituzten molekulak produzituko dituztela jakinda".*



- Nola sortu zen enpresa?, Zerk bultzatu zintuen, honelako enpresa-proiektuari ekitera?

- Beti, bokazio ekintzailea izan dudala uste dut, enpresaburu izateko helburua ez nuen arren. Zerbaitetan aukera handiak ikusiz gero, ideia eta proiektu horiek garatzeko kezka nuen. Motibazioei zegokienean, nire kezka nagusia proiektua aurrera ateratzea zen, eta ez hainbeste dirua irabaztea. Dena den, DRO sortzeko erabakia hartzeko hiru faktore eman ziren: nire doktoretza-ikastaroak amaitu berri nituen, merkatuan zegoena hobetzen zuten hainbat garapen teknologikoren ideia esperimintatu nituen eta, garrantzitsuena, negozioen arrakastak kanpotik dirua ekarri arte, negozioa finantzatzeko nahikoa diru nuen.

- ¿Zein da DROk eskainitako produktu nagusia? Zein motatako bezerorentzat da?

- Hainbat arrazoiengatik, DROren jarduera, plasmidoak diseinatu, osatu eta produzitzera zuzendu da. Plasmidoak, kromosomen egitura kimiko bera duten molekulak dira eta organismo batzuetatik besteetara informazio genetikoa transferitzeko erabiltzen dituzte. Hala ere, plasmidoen eta jatorri biologikoko beste hainbat molekulen -proteinak batez ere- produkzioa izugarri hobetuko duen teknologia garatzen ari gara aplikazio terapeutikorako. Zein molekula behar duten ezagutzen badute ere, behar adina eta beharrezko kalitatearekin produzitzeko ahalmena ez duten unibertsitateko ikerketa-taldeei, farmazia-laborategiei eta enpresei saltzen dizkiegu produktu horiek.

Marco Simonen iritziz, DROn garatutako produktuen bidez, enpresaren bezeroek, beste modu batera ezingo lituzketen produktuak garatu eta ikerketak egin ditzakete. "Gure bezeroek garapen farmazeutikoaren hainbat alderditan jarduten dute, gaixotasun bat eragiten duen gen bat aurkitzetik hasi, eta molekula jakin baterako formulazio-sistema galenikoak aurkitu eta nola hartu behar diren arte. Gure lanari esker, alderdi horietan sakontzen dute, beste batek, euren lanak aurrera jarraitzeko behar dituzten molekulak produzituko dituztela jakinda"

- **¿Produktu-mota hau nola sortu zen eta, ondoren, nola garatu zen?**

- *Hasieratik, enpresa-proiektu honen oinarriko baldintzen artean, pertsonen ongizatea hobetzen lagundu behar zuela zegoen. Ni farmazialaria naiz, medikamentuak garatzeko ikasi dut eta, horrenbestez, DROk garapen farmazeutikoko prozesuan modu batera edo bestera hartu behar*

zuen parte. Nire doktoretzako ikasketen bidez biomolekulak produzitzeko metodotan espezializatu nintzen. Horrenbestez, garapen farmazeutikoko prozesuan enpresaren partaidetzak, aplikazio terapeutikoarekin biomolekulak produzitzeko prozesuak hobetzeko helburua du. Ondoren, gure produktuen eskaintza, merkatuaren eskaera-ikuspegiak baldintzatu zuten, proiektua gauzatu ondoren, irauten duela ziurtatu behar baita, eta bertan merkatuak bakarrik agintzen du.



- **Nolako zailtasunak aurkitu zenituen negozioa abian jartzeko?, Enpresa abian jarri aurreko erabakiak hartzeko prozesua nolakoa izan zen?**

- *Nire iritziz, oztopo nagusia beti, hainbat arrazoiengatik, proiektua baloratzeko aukera dutenen eszeptizismoa da. Badira beste hainbat arazo-mota, adibidez, ekonomikoak, legalak eta teknologikoak, aurreikus daitezkeenak. Baina negozioaren hasieran, izugarriko gogoia besterik ez duzu, eta gogo horrekin kontu handiz ibili behar da kritikek ez kaltetzeko. Kritika horiek zuzenak ala okerrak izan daitezke, baina ekintzailearen gogoan eragin handia dute. Nire kasuan, erabakia hartzeko prozesuan hainbat hilabetetan ideia aztertu nuen, arrakasta izango zuela argi ikusi arte. Une horretatik aurrera ez zegoen atzera egite-rik.*

Enpresa-proiektu honen oinarriko baldintzen artean, pertsonen ongizatea hobetzen lagundu behar zuela zegoen

- Eragozpenen artean, zein izan ziren konpontzen zailenak: ekonomikoak bakarrik zirenak, edo konpainia abian jartzeko beharrezko baliabide teknologikoekin eta ekipoa osatuko zuten pertsonekin lotutakoak?

- Arazo ekonomikoak handiak dira, eta are gehiago, mota honetako negozio batean, inbertitutakoa berreskuratzeko hiru urte baino gehiago igaro daitezkeelako. Baliabide teknologikoek, nire ustez, eragin txikiagoa dute, laguntzeko, eta bere ezagutzak eta teknologiak eskaintzeko prest dauden nahikoa zentro teknologiko eta enpresa daudelako. Pertsonak, ordea, negozioa dinamizatzeko ezinbestekoak dira. Sortzeko fasean dagoen DRO bezalako enpresa batean, bertan lan egiten dugunontzat ordainsaria, azken helburura -negozioa finkatu- heltzen laguntzen diguten mugarri txikiak lortzea da.


- Zein laguntza jaso zenituzten, edozein enpresa-proiektuk hasieran dituen zailtasunak gainditzeko?

- Enpresa, nire diruarekin eta familiaren laguntzarekin sortu nuen. Hasieratik, aurreikusitako teknologia garatzeko laguntzaileak bilatzen hasi nintzen. Aldi berean, enpresak garatzeko erakundeek laguntzeko zituzten programak bilatu nituen eta, DRO eratu eta hila-bete gutxitara, banuen BIC Gipuzkoa Berrilanen babesa. BIC Berrilanez, negoziarako toki egokia, babes logistikoa, aholkularitza profesionala, eta negozio planaren sorrerarekin lotutako gastuak finantzatzeko diru-fondoa eskaini zizkidan. Aurrerago, Gipuzkoako Foru Aldundiaren Txekin-tek programaren babesa lortu genuen. Honi esker, garapen teknologikoaren zati bat finantzatu eta lehen prototipoa eraiki ahal izan genituen.

- Konpainia abian jarri zenutenean, erakunde-mailako zein laguntza ez zenuten jaso, behar izan arren?

- Pentsatzen dut hasten ari diren enpresa guztiek, diru-laguntzak lehenbailehen jaso nahi dituztela. Gure kasuan, gustura nago jasotako laguntzengatik. Noski, bada egokitasuneko kostu bat, behar zen finantziarioa berehala eskaini ez zutelako, izan ere beharrezko azpiegitura antolatze hainbat baliabide kontsumitu arte enpresa hau ez da





hasiko mozkinak ematen. Hala ere, ez zait ondo iruditzen, diru-laguntza jasotzeko enpresa-proiektuaren inguruan etengabe egiten dituzten azterketa eta balorazioa. Ulertzen dut fondo publikoak nora doazen kontrolatu egin

behar dela, baina, erakundeen diru-laguntzak jasotzeko, garapen teknologikoa burutzen ari diren bitartean, salmenten bidez mozkinak lortu behar eta negozio-ereduaren baliagarritasuna behin eta berriz ebaluatu behar izateagatik, oinarri teknologikoko enpresa-proiektuak arriskuan jartzen direla uste dut. Garapen teknologikoaren aldeko apustuak argia goa izan beharko luke, proiektuaren arrakasta arriskuan jartzen duten baliabideak xahutzea saihesteko.

Hala ere, Marcos Simonek azaldu du, Gipuzkoan, enpresa-tradizio handia dagoela, eta hori, enpresak sortzeko gizarateak erakusten duen jarrera positiboan antzematen dela. Bere iritziz, "oso garrantzitsua da jendea kontzientziatzea, eta badira enpresa berritzaileak kokatzeko espazio bereziak." "Enpresa eta zentro teknologikoen artean, tarteka, elkarlanean aritzeko beharrezko garapen teknologikoko dentsitatea izango duten zonak sortzen ari gara, eta horrela zaila da ideia on bat galtzea. Gipuzkoan proiektu berria abian jarri nahi dutenek, erakunde-en laguntza eta enpresa garapeneko agenteen babesa izango dute."

Erakundeen diru-laguntzak jasotzeko, garapen teknologikoa burutzen ari diren bitartean, salmenten bidez mozkinak lortu behar eta negozio-ereduaren baliagarritasuna behin eta berriz ebaluatu behar izateagatik, oinarri teknologikoko enpresa-proiektuak arriskuan jartzen dira

- Zuk, nola erabaki zenuen DRO non jarri?

- Enpresa martxan jartzea erabaki nuenean Danimarkan bizi nintzen, eta alde horretatik, negozioa non jarri erabakitzeko aukera nuen. Hainbat arrazoi pertsonalengatik, Donostia oso gustukoa nuen; hala ere, Donostia enpresa ikuspegitik baloratu behar nuen. Behin betiko erabakia hartzeko erabakigarria izan zen erakundeek enpresa berritzaileak sortzeko eskaintzen zuten babesa.

- Gipuzkoan bereziki, eta Euskal Autonomia Erkidegoan orokorrean, teknologia berriekin lotutako ekimenak garatzeko giro sozioekonomiko eta kultural aproposa dagoela uste al duzu?

- Bai. Erakundeek egindako azken plan estrategikoetan ikusten den

bezala, ezagutzaren eta teknologiaren garapena funtsezkoa da gizartearen aberastasuna handitzeko. Gipuzkoan eta Euskal Autonomia Erkidegoan hori guztia, teknologia berriekin lotutako sektore estrategikotan enpresen sorrera bultzatzen duen ekintza espezifikoan bilakatu da.

- Zure enpresa-proiektuaren hastapenean, erraz lortu al zenuen zure negozioarako zenuen ideia bultzatzeko hasieran behar zenuen kapitala?, Nola lortu zenuen diru hori (zure kapitala, erakundeen laguntzak, "friends & family" (lagunak eta familia), finantza erakundeak, kapital/arriskua, eta abar)?

- Enpresatik kanpoko edozein pertsonak, proiektuaren arrakasta neurtzeko, sustatzaileak, laguntza eskatu aurretik proiektuan zenbat baliabide inbertitu dituen hartzen du kontuan. Hori jakinda, aurrezki eta denbora asko, enpresa proiektua garatzen eman nuen. Proiektua aurrera ateratzeko gai nintzela ziur nengoenean, negozioaren ehuneko jakin bat senitarteko eta lagunei eskaini nien dirua jartzearen truke. Uste baino erantzun hobea jaso nuen, eta denbora batean enpresaren jarduerak finantzatzeko nahikoa diru bildu genuen. Halaber, erakundeen laguntzak eskuratu ditugu enpresaren barne-ekintza puntualak burutzeko, adibidez, kontratatzeke, komunikazio-sistemak garatzeko eta informazioa kudeatzeko, eta ikerketako proiektuak burutzeko. Une honetan, enpresa erabat garatzeko, nahikoa fondo lortzeko finantziazioekin ari gara lanean.

- Zure prestakuntza, garrantzitsua izan al zen enpresa abian jartzeko?

- Garatzen ari garen teknologiar buruz dakidan guztia, unibertsitatean eta lanean ikasi dut. Hala ere, enpresa-kudeaketari buruz dakidan guztia, konpainia sortu nuenetik ikasi dut. Zalantzarik gabe, enpresen kudeaketaren arloko prestakuntza oso lagungarria izango zen proiektu hau abian jartzeko unean.



- Zure ustez ba al dago alderik prestakuntza-arloan ikasleei eskaintzen zaien eta lan munduan eskatzen dutenaren artean?

- Bai, alde garrantzitsua dagoela uste dut. Nire iritziz, hala ere, arazo nagusia, ezagutza eta gaitasunak nahastu egiten direla da. Unibertsitatean eta beste hainbat ikastegitan ezagutzari garrantzi handia ematen diote eta ikasleek irakasgaien edukia ezagutu behar dute, baina gutxi lantzen dituzte ikasleen lanbide-joerak, erlazionatzeko eta komunikatzeko gaitasuna, eta negoziazioa. Heziketa amaitu eta lan-munduan sartzean, ikasitako guztiak gutxirako balioko dizula iruditzen zaizu, denbora asko eman duzula balio ez dituzten gauzak ikasten.

- Zein neurri hartu beharko lirateke hezkuntzaren esparrua lan-munduaren premietara hobeto egokitzeko?

- Nik uste dut ezagutza berez garrantzitsua dela, ez dituzte ikasleak enpresa-bokazio batera zuzentzen saiatu behar. Hala ere oso garrantzitsua iruditzen zait, lanbide garapenaren esparru jakinetan ikasleen gaitasunak edo joerak aprobetxatzea. Hau da, enpresa-mundurako joera duten ikasleak prestatzeko gai izan beharko genuke, karrera amaitzean bertan eskuratutako ezagutzak ustiatzeko, beste bi urte enpresarenak bakarrik diren arlotan prestatzen eman gabe.

- Zaila al da inbertitzaile batek, zuek duzuenaren antzeko ezau-garriak dituen enpresa garapen batean inbertitzea?

- Bai. Zaila da, etorkizuneko proiektua delako. Aurkeztutako irudia, epe luzeko mozkinak eta enpresaren hazkuntza oso erakargarriak badira ere, hasieratik, inbertitzen denetik dirua berreskuratu arte hiru urteko tartea egongo dela planteatzeak, inbertitzaileak beldurtzen ditu. Mozkina urrunago ikusten den neurrian fondoak lortzeko zailtasunak handiagoak dira, eta horrek, derrigorrez, mozkina atzeratzen du. Pazientzia eta negoziazio asko eskatzen duen egoera zaila sortzen da.

- Zure iritziz zailagoa al da tradizio teknologiko handiko herrialde batekoa ez den enpresa batek teknologia "saltzea"?

- Bai, baina uste dut arazoa ez dela tradizio teknologikoa egotea edo

**Gipuzkoan
proiektu berria
abian jarri nahi
dutenek, erakun-
deen laguntza eta
enpresa garape-
neko agenteen
babesa izango
dute**

ez, epe luzerako proiektutan inbertitzeko tradizioa egotea ala ez baizik. Ikusi dut ordea, konfiantza txikia dagoela. Ez da erraza pauso handiak eman eta laguntza handiak jasotzea. Laguntza txikien truke, poliki-poliki eboluzionatzera behartua zaude. Garapen teknologikoa barne hartzen denean, oso arriskutsua da, egokitasun-kostu handia izan daitekeelako.

- Zein da, zure enpresak landutako proiektuen artean gustukoena duzuna?


- Zaila da proiektu jakin bat aukeratzea, guztiei ilusio handiz ekiten diegulako, eta helburua lortzea beti da atsegina. Berezi atsegina da garapen teknologikoa, aurreikusitakoaren arabera aurrera egiten ari dela ikustea. Horri lotuta, oso atsegina izan zen, garatzen ari garen teknologia patenta zitekeela egiaztatzea.

- Epe ertainera, zein proiektutan ari da lanean zure enpresa?

- Enpresak etorkizunari begira garatzen jarraitzeko, hainbat proiektu garrantzitsutan ari gara lanean. Alde batetik, inbertsioa babesteko, garatutako teknologia patentatu behar dugu. Halaber, behar ditugun inbertsioei eta datozen bi urteetako garapenei aurre

egin ahal izateko, finantziario-erronda egiten ari gara. Gainera, aurreikusitako garapen- eta produkzio erritmoari eusteko beharrezko ahalmek izango dituen pertsona-taldea bildu behar dugu. Eta, amaitzeko, enpresak lehiatu behar duenean eboluzionatzeko giltza izango diren kalitate- eta kudeaketa-sistemak garatzen ari gara.





- Merkatu globalizatu batean lehia beti gogorra da, baina are gogorragoa teknologia berrien sektorean. Zein dira zure enpresaren lehiakide nagusiak?, Zein baliabide dituzue lehia horretan aurrea hartzeko?, Zein dira aukerak?

- Orain badakigu, garatutako teknologiak funtzionatu egiten duela, eta adi egon behar dugu, gure lehiakideen aurrean teknologiaren arloan abantaila izaten jarraitzeko. Horretarako, teknologiaren arloan adi eta kontuz ibili behar dugu. Kontu handiz ibili behar da, izan ere, teknologia onena izan arren, negozio honek, azpiegiturei dagokienean, oso inbertsio garrantzitsuak eskatzen ditu, produkzio farmazeutikoari buruz ari garelako. Inbertitzeko beharrezko maila hori lortzen ez badugu, ezin-go dugu teknologiaren potentzial osoa garatu. Gure aukera nagusia da, gure merkatuan eskaera eskaria baino handiagoa dela; horregatik, sartzeko oztopoak murriztu egiten dira.

- Etorkizunean zein produktu eskaini nahiko zenuke?

- Teknologia, enpresaren barne-produkzioko prozesuetan erabiltzeaz gain, teknologia horretan oinarrituta, laborategi-mailan garbitzeko gailuak saldu nahi ditugu. Urte betean gailu horiek salgai jartzeko asmoa dugu.

- Zure konpainiak ba al du kanpora ateratzeko proiekturik?

- Bai. Hasieratik, DROk nazioartean zabaltzeko asmoa izan du. Izan ere, kudeaketa sistema osoa merkatu globaletan pentsatzen eta hainbat herrialdetan enpresa sartuko dela aurreikusten egiten ari gara. Zuzentzen ari garen merkatua ulertzen zaila da nazioarteko eskalan pentsatzen ez badugu.

- Zuen enpresan osagai teknologikoak hainbeste garrantzia izateak, eragin handia al du konpainiaren barne-antolakuntzan?

- Zalantzarik gabe. Gure inbertsioen zati handi bat garapen tekno-

Quien quiera poner en marcha un proyecto novedoso en Gipuzkoa se encontrará con una actitud positiva de las instituciones y con el entendimiento de los agentes de desarrollo empresarial

logikora zuzentzen da. Jasotzen ditugun laguntza gehienak ikerketan eta garapenean erabiltzen ditugu. Enpresaren estrategia, garatzen ari garen teknologiaren inguruan mugitzen da. Faktore hauekin, garapen teknologikoak eragin handia du enpresaren barne-antolakuntzan eta estrategian.

- Zure ikuspuntutik, ezagutzaren eta kapital intelektualaren kudeaketa egokiak nolakoa izan behar du?, Nola lortzen da kudeaketa egoki hori?

- Ni oraindik ikasten ari naiz, baina nire ustez garrantzitsua da erakunde bateko pertsona guztiek, bertan lan egiten duten besteek zein gaitasun eta ezagutzak dituzten jakitea. Erakunde bat hazten den neurrian, gardentasun hori zailagoa egiten da; horregatik, ezagutza hori erakunde osora zabaltzeko baliabideak sortu behar dira. Modu horretan, une bakoitzean pertsona egokienera jo dezakegu enpresaren ezagutza gabeziak jakiteko, eta, hala badagokio, prestakuntzaren bidez zuzentzeko.

- Euskal Autonomia Erkidegoan / Espainian / Europan oinarri teknologiko egokiak al daude?

- Nik dakidanez, garapen teknologikoa, emaitzen ustiapen ekonomikoaren oso aurretik doa, eta Europa osoan ustiapen ekonomiko hori sustatzeko ahalegin handiak egiten ari dira. Garapen ekonomikoari dagokionean honako hau azpimarratzea garrantzitsua iruditzen zait: kontua ez da gauza asko asmatzea, asmatutako gauzak, merkatua izango duten produktu bihurtzea baizik.

- Arlo teknologikoak enpresa baten duen garrantzi handiak zaildu egiten al du bere eguneroko kudeaketa?

- Mendetasun teknologiko hori enpresaren erabaki estrategikoa dela uste dut, eta estrategia horrek, kudeatzeko metodo berezia eskatzen duela. Metodo hori, ordea, ez da bestelako osagaien mende dauden enpresen kudeaketa baino zailagoa. Desberdina da, besterik ez.





- Zein berezitasun ditu, zuk ordezkaten duzuna bezalako OTEB (Oinarri Teknologikoko Enpresa Berriak) baten kudeaketak?

- Nire ustez OTEBek, funtsean, enpresa berri batek merkatuan sartzeko oztopoak, kudeaketa eta finantziazioa bezalako arazoez gain, garapen teknologikoaren arazo-

ak dituzte. Horren-bestez, epe luzera finantziazio handia, helburu estrategikoekin kudeaketa konprometitua eta sortzen ari zaren enpresarentzako bi urte baino gehiagoko aurreikuspenak balio izatea behar dugu.

- Ikuspegi etiko batetik, erakundeek arautu eta gainbegiratu behar al dituzte ekimen pribatuak abian jartzen dituen ikerketa zientifikoak eta garapen teknologikoak?

- Nik uste dut ezagutza ez dela berez arriskutsua. Ezagutza hori lortzeko metodoak edo ezagutza hori zertarako aplikatzen den izan daitezke gaitzesgarriak. Beraz, nire ustez, ez da kontrolatu behar zer aztertu nahi den, erabilitako metodoak eta zertarako erabiltzen diren baizik.

Tanto la organizaci3n interna como la estrategia de la empresa est3n muy influidas por el desarrollo tecnol3gico

- Egia al da, erakundeek jar ditzaketen muga, debeku eta oztopoen gainetik, zientzia eta teknologiaren arloetan Ameriketako Estatu Batuetan hainbeste errepikatzen den "ahal den guztia egiten dela" esaldian adierazitakoa?

- Ez da "daitekeen" guztia egiten, baina bai egin "nahi den" guztia.



- Zuen sektorean, zein litzateke "killer application" nagusia (merkatuko sektore jakin baten iragana eta etorkizuna bereiziko dituen produktu edo zerbitzu berria)?

- Gure sektorea bioprozesuen sektorea da eta organismo bizien barruan sortutako molekulak garbitzen saiatzen gara. Normalean, ondo garbitzeko pauso ugari eman behar dira, eta tarteko pauso bakoitzak prozesuaren azken errendimendua murrizten du. Garbiketa bera emateko pauso gutxiago emango lituzkeen prozesuak, honen errendimendua handituko luke, produkzio-denbora murriztuz eta mozkinak handituz. Garatzen ari garen teknologiarekin hori lortzen dugu.


- Zure ustez duela gutxi Gipuzkoan sortutako NEBTetan nola eragin du 2000. urtean enpresa teknologikoek mundu osoan izandako beherakadak?


- Antza denez, arriskuko proiektutan inbertitzaileen mesfidantza areagotu egin da. Hala ere, nire iritziz, denbora bat arretaz ibili ondoren, inbertitzaileek beste hainbat sektore aukeratu dituzte inbertitzeko eta kontu handiagorekin egiten dute. Dirua geldirik uztea garestiagoa da.

Iraganean konpainia teknologiko askok porrot egin zutela ikusita, DRO enpresako arduradun nagusiak gauza bat azpimarratu du, hots, edozein enpresa berrik, merkatuan daudenetatik diferente izan behar duela. Gauza bera egiten ari diren enpresak gero eta gehiago izan, porrot egiteko aukera handiago dago. *"Oinarri teknologikoko enpresa bat garatzean, oso garrantzitsua iruditzen zait, garatu ondoren, teknologia horrek merkatua izango duela alde aurretik ziurtatzea, garatzen hasi arte itxaron gabe."*

- Zein alde dago NEBT baten eta, adibidez, enpresa industrial berri baten artean?

-NEBTak finantziazio handiagoa behar du eta, gainera, hainbat urte igaro arte ez du mozkinik izango. Baina, epe luzera, mozkin egonkorragoak eta kalitate handiagoko lanpostuak sortzen dituen apustu seguruagoa da.





Marco Simoni, DROren eguneroko kudeaketan zerk kezkatzen duen gehien galdetzen bazaio, berak dio, konpainiak gaur bizi duen egoeran, oso zaila egiten zaiola pertsona gutxi batzuk askoren lanaz arduratu behar izana. *"Oso erraza da eguneroko lanean murgilduta aurrea egitea, eta epe luzeko helburuak eta plan estrategikoak ahaztea. Arlo horretan, eguneroko kudeaketan nire kezka nagusia, egunerokotasunari eskainitako denboraren eta helburu estrategikoei eskainitakoaren arteko orekari eustea da."*

- Zein dira, zure ustez, ekintzaile berrien ezaugarriak?, Zerk bultzatzen ditu enpresa berriak sortzen parte hartzera?

- Pertsonak enpresa bat sortzeko dituzten arrazoiak asko dira, arrazoi idealistetatik hasi eta pragmatikoetaraino. Ez dut uste arrazoi batzuk besteak baino hobeak direla, edo enpresa bat sortzea gehiago edo gutxiago justifikatzen dutela.

- Zein itxura hartzen diozu zure konpainiari epe ertain eta luzera?

- Bi urteko epean, DROk, bere produkzio-prozesuetan erabat sartuko du garatutako teknologia, eta nazioarteko merkatuan laborategi-mailako produkzio-gailuak salduko ditu. Hurrengo bi urtetan, hainbat herrialdetan gure egoitzak izango ditugu eta bioterapeutikoak produzitzeko nazioarteko merkatuan erreferentea izango gara.

"Oinarri teknologikoko enpresa bat garatzean, oso garrantzitsua iruditzen zait, garatu ondoren, teknologia horrek merkatua izango duela alde zurretik ziurtatzea, garatzen hasi arte itxaron gabe"

- Orain arte metatu duzun esperientzia izanda, enpresa hauze bera sortzen lagundu beharko bazenu, bere garaian hartutako erabakietatik zein aldatuko zenuke?

- Esperientzia honekin, egoerak hobeto ebaluatzen, xehetasunen garrantzia erlatibizatzen eta negoziatzen ikasi dut. Negozioek eta merkatuarekiko elkarrekintzak nola funtzionatzen duten hobeto ulertzen dut. Proiektuaren funtsezko zati bezala, pertsonen ekarpenari balio handiagoa ematen diot. Funtsean, hasierako ilusio berberak ditut eta gauzak modu berean egiten ditut, baina ikuspegi hobea izanda. Gauza bera egingo nuke baina hobeto.




- Zer esango zenieke, enpresa-proiektu berria abian jartzen pentsatzen ari diren pertsoneri?, Nola animatuko zenituzke, eta zertan jarri behar-ko lukete arreta berezia?

- Ondo pentsatzeko, arrakasta lortzeko aukerak baloratzeko, zer irabazi eta zer gal dezaketen aztertzeko, eta, erabaki ondoren, ez etsitzeko esango nieke. Halaber, arriskuak hartzeko prest badaude, eta egiten dutena DROrekin lotuta badago, lehendabizi gurekin harremanetan jartzeko gomendatuko nieke. Hemen jendea behar dugu.

- Zalantzarik gabe, ekintzaileak ez du lan erraza, eta arazo eta nahigabez betea badago ere, balorazio materialak alde batera utzita, zerk konpentsatzen du ekintzailearen lana eta esfortzua?

- Enpresa kontsolidatzen den arte eta teknologiak merkatuan arrakasta lortu arte, ez dut nire burua gustura ikusiko. Oraingoz, ordea, ilusioa, etorkizunari begira jartzeak, eta gauzak ondo egiten ari garela adierazten duten arrakasta txikiak sortzen didate. Adibidez, emaitza esperimental positiboak lortzeak, eskaeraren bat osatzeak, faktura bat kobratzeak, inbertitzaile baten interesa antzemateak edo proiektu baterako diru laguntza lortzeak.





Tokia: Donostia

Web orria: www.dro.es

Produktu nagusiak: Biomolekulen eta garbitzeko gailuen produkzioa.

Telefonoa: +34 943308011
Fax: +34 943000990
E-mail: info@dro.es
Web orria: www.dro.es
Helbidea: Parque Tecnológico
Mikeletegi, 54 - 1
20009 Donostia